

Memoria

2024



AZKUE

FUNDAZIOA



1. Agurra	2
2. Sarrera	3
3. Euskararen Etxea	4
<ul style="list-style-type: none">• Euskararen Interpretazio Zentroa: Europako Kontseiluaren 2025 Museoen Saria• “Euskal Alien Nazioa” ihes-gela• “Euskararen Etxea, plazara” erakusketa ibiltaria• “Liburuaren Arbola” erakusketa• “Euskararen Lorategia” erakusketa birtuala• Euskararen Nazioarteko Eguna: “Gida Bira, gure museoak bertsoan”• Ondarearen Europako Jardunaldiak: “Euskara, mugez gaindi”• Poesiaren Nazioarteko Eguna, Euskararen Etxean: “Alaska”• Open egitasmoa• Udako Programa	
4. Zabalpena	8
<ul style="list-style-type: none">• Web bisitak• Sare sozialen jarraitzaileak• Albiste kopurua• Euskararen Etxeko zerbitzu nagusiak<ul style="list-style-type: none">- Euskararen Interpretazio Zentroa- Aretoak- Erreserbak- Lantegi Kooperatiboa	
5. Azkue Fundazioa	10
<ul style="list-style-type: none">• Irudi berria• Jokoteknia Bideo-jokoen Euskal Jardunaldia• Bziber lehiaketa• Xare Euskarazko Kultura Digitalaren Jardunaldia• Hala, Biral! kanpusa• Memeka meme lehiaketa• IDE Ingurune Digitaleko Hiztegi Eleaniztuna• Herrietako Telebista	
6. Babesletzak	12
7. Zabalpena	13
<ul style="list-style-type: none">• Web bisitak• Sare sozialen jarraitzaileak• Albiste kopurua	
8. Parte-hartzeak	13

Agurra

Azkue Fundazioak **euskara esparru digitalean sustatzea du helburu**, askotariko **egitasmu digitalen bidez**.

Proiektu horietako asko lankidetzan garatzen eta abiatzen dira, Azkueren helburu nagusienetako bat elkarlana sustatzea baita. **Horretarako lan-sare zabal bat osatu nahi du eremu digitaleko hainbat euskal eragilerekin**.

Azkueren egitasmuak euskaldun guztien mesederako gauzatzen badira ere, **gazteak ditu jomugan**.

Hala, fundazioa betiko martxan aritu da urte osoan. Hori dela eta, eremu digitalari lotutako hainbat egitasmu egin ditu, besteak beste, **proiektu berri bat abiatu du: gazteei zuzendutako Memeka meme lehiaketa**.

Horrekin batera, Azkue Fundazioak Bilbon kokatutako **Euskararen Etxea kudeatzen du**.

2024ari dagokionez, berezia izan da oso, Euskararen Etxean kokatutako **Euskararen Interpretazio Zentroak (EIZ) Europako Kontseiluko Kultura Batzordeak ematen duen 2025eko museoen saria jaso baitu**, eta horrek bultzada ekarriko dio 2023an inauguratutako EIZri.


Sarrera

Euskararen Etxea Bilboko San Ignazio auzoan dago, eta 2004an sortu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bilboko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren ondorioz. Egun, Azkue Fundazioak kudeatzen du.

Euskararen Etxeak erreferentzia izan nahi du euskal eragileentzat eta euskal jendartearentzat. Horretarako, hainbat zerbitzu eta bitarteko eskaintzen ditu: **Aretoen Lagapena, Lantoki Kooperatiboa eta Euskararen Interpretazio Zentroa (EIZ).**

2024an, 9.881 lagun igaro dira Euskararen Etxetik, 2023an baino 2.131 pertsona gehiago. Euskararen Etxearen ibilbideko daturik onena da. Hartara, pozteko albistea da, zalantzarik gabe.

Erabiltzaile kopurua urteka



Halaber, **Euskal Alien Nazioa ihes-gela eta Hostopostoak familia-programa eskaintzen jarraitu da.** Lehenengoak oso harrera ona izaten jarraitu du, baita 2023an ere, batez ere euskaltegietako bisitarien artean. Dena dela, bi zerbitzu horien adierazleek ohartarazi digute erabiltzaile-kopuruek behera egin dutela, batez ere bigarrenak. Hori dela eta, familia-programa berria diseinatzea izango da hurrengo urteetarako erronka.

Lantoki Kooperatibori dagokionez, bigarren deialdia abiatu da iragan azaroan; deialdi horretara aurkeztu diren eragileak co-working gunean arituko bi urtez, 2024tik 2025era. Hauexek dira Lantoki Kooperatiboan lan egingo duten eragileak: **111 akademia, EMUN kooperatiba elkarte, Euskal**

PEN, TAUPA, Euskarabentura elkarte, Garabide kultur elkarte, Kukulaisi, Ekki Euskal kultur gileen Kidegoa, Loraldia kultur elkarte eta Tokikom.

Aretoen Lagapenaren harira, 3.639 lagunek parte hartu zuten 186 jardueratan. Kopuruek gora egin dute, 2023ko adierazleen arabera, 2.089 lagun eta 148 jarduera izan baitziren artoetan.

Azkue Fundazioari dagokionez, hainbat proiektu egin dira, gehienak gazteei zuzenduak, besteak beste, **Jokoteknia Bideo-jokoaren Euskal Jardunaldia, Bziber lehiaketa eta Xare Euskarazko Kultura Digitalaren Jardunaldia.** 2024an, gainera, egitasmo berri bat garatu da, **Memeka** meme lehiaketa, hori ere gazteei zuzendua.

Euskararen Etxea

Euskararen Interpretazio Zentroa: Europako Kontseiluaren 2025 Museoen Saria



Europako Kontseiluko Kultura Batzordeak Euskararen Interpretazio Zentroari eman dio 2025eko museoen saria.

Epaimahaiak gure museoko “esperientzia murgilgarria” goraiatu du, eta azpimarra berezia egin die Interpretazio Zentroko edukiei. Museoak “euskarari lotutako emozio, erronka eta erresistentzia sakonak” islatzeko gaitasuna duela adierazi dute, eta “euskarak komunitatea sustatzeko duen garrantzia eta bilakaera aztertzeko aukera” eskaintzen duela nabarmendu.

Aipaturiko guztiez gainera, epaimahaiak Euskararen Interpretazio Zentroko irisgarritasuna eta aniztasuna txalotu ditu. Edukiak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez eskaintzen direnez, “museoak askotariko ikusleen parte hartzea” bermatzen duela iritzi dio: “Zentroak Europako hizkuntzen eta kulturen arteko lotura egiten du. Hizkuntzen arteko antzekotasunak eta elkarren arteko eraginak aztertzeko aukera ematen du, era horretan, Europako hizkuntza aniztasuna sakonago ulertzeko”, esan dute.



“Euskal Alien Nazioa” ihes-gela

2021ean abiatu zen ihes-gela, eta harrezkerotik, Euskararen Etxeak eskaintzen dituen zerbitzuen barruan finkatu da, bere harrera ona tarteko.

Parte-hartzaileek euskarari lotutako zientzia fikziozko misterioa askatu beharko dute aretotik atera ahal izateko: “2155. urtean gaude. Estralurtarrak Euskal Herrira iritsi berri dira euskararekiko mirespenak itsututa. Beraien espazio-ontzia Euskal Herriko txoko guztietatik ikus daiteke. Beraien helburua argia da: euskara hartu eta beraien bizilekura eraman...”.

15 urtetik gorakoentzako ekimena da, eta ostegun, ostiral eta larunbat arratsaldeetan eskaintzen da.

>> **Taldeak:** 27

>> **Parte-hartzaileak:** 148 pertsona



Horrekin batera, Euskararen Etxeak “Hostopostoak” familia-programa ere eskaintzen jarraitzen du: Sei eta hamar urte bitarteko umeek parte hartzeko proposamen dibertigarri bezain hezigarria da **Hostopostoak**. Ekimenaren helburua euskaraz eta familian edo taldean jolastea da. Horretarako, mahai-jolas erraldoi bat erabiltzen da.



“Euskararen Etxea, plazara” erakusketa ibiltaria



Euskararen Etxea, plazara erakusketaren bidez, Euskararen Etxeak bere hormak gainditu eta Interpretazio Zentro berriaren edukien lagin txiki bat aurkeztu nahi du, eta herritarrak bere egoitzara hurbiltzera gonbidatu nahi ditu, bisita esperientzial eta ludiko batetik abiatuta, bisitariak euskararen izaera poliedrikoan murgildu daitezzen.

Euskararen Etxea, plazara erakusketaren helburua da euskara, antzinako hizkuntza izateaz gain, gaztea, zirrargarria eta eraikitzen ari den hizkuntza dela ezagutaraztea, eta baita munduko hizkuntza-aniztasunaren parte dela ere nabarmentzea.

Horretarako, erakusketak askotariko edukiak biltzen ditu, besteak beste, euskararen egunez eguneko egoeraz ohartarazten duten datuak, euskararen historia josi duten pertsonaia eta gertaerak, euskararen etorkizunerako erronkak edo euskal kulturaren aberastasuna eta kalitatea islatzen duten edukiak.

Erakusketa UPV/EHUren Leioako Campusean izan da irailaren 26tik, Hizkuntzen Europako Eguneetik, abenduaren 4ra.



“Liburuaren Arbola” erakusketa

Euskararen Etxeak gure hizkuntzaren inguruan topalekua, lan kooperatiborako zentroa eta laborategia izatea du helburutzat.

Hala, *Liburuaren arbola* #liburuarenarbola erakusketa ibiltaria prestatu du, eta 2022an bere ibilbidea egiten jarraitu du; hain zuzen ere, apirilaren 3tik 26ra bitarte, Barakaldoko Ceferino Del Olmo Udal Erakusketa Aretoan egon zen ikusgai.

Erakusketak liburuaren izaera azaltzen du: hizkia, idazketa, diseinua, inprimaketa. Bisitariak ezagutzen du hizkiek nolako anatomia daukaten, testuek nolako formak hartzen dituzten, liburuak zein parte dauzkan eta nola izendatzen ditugun euskaraz.

Gorka Arrese editoreak apailatu du erakusketa, eta hitzaldi bana egin du udalerrri horietako bakoitzean.

Erakusketaren helburuak:

- Liburua berez zer den ezagutzea, ulertzea eta bere garrantzia azpimarratzea.
- Liburuaren zati nagusiak identifikatzea: letraren anatomia, testuaren fisiologia eta liburuaren biologia.
- Liburuan parte hartzen duten eragileak aztertzea: idazlea, editorea, irakurlea, inprimategia.
- Euskal literaturara eta liburugintzara gerturatzea, Bizkaikoari bereziki erreparatuz.

“Euskararen Lorategia” erakusketa birtuala

Euskararen Interpretazio Zentroak eskaintzen duen



Eskola Programan parte hartu duten 15 eta 18 urte bitarteko ikasleek egindako collageekin osatu da Euskararen Lorategia erakusketa koloretsu eta

irudimentsua, zeina sarean ikus daitekeen: www.euskararenetxea.eus

Horrekin batera, euskarak ikasleengan eragiten dituen iritziak ere biltzen ditu, collageetan txertatu dituzten testuekin osatutako zuhaitzean.

Eskola Programan EIZko edukiak lantzen dira, eta edukiok ikasmaita ezberdinetara egokitzen dira; Euskararen Lorategia, hain zuzen, DBH3, DBH4 eta Batxilergoko ikasleekin jorratzen den jardura da, ikasleak euskararen aniztasunaz jabetu daitezten, eta euskararekiko duten harremanari buruz gogoeta egin dezaten. Horretarako, haien sormena garatzen dute collage teknikaren bitartez.

Euskararen Nazioarteko Eguna: “Gida Bira, gure museoak bertsotan”

Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, Euskararen



Etxeak, Bizkaiko Foru museo eta aretoekin elkarlanean, *Gida Bira, gure museoak bertsotan* ekimena ondu du hirugarrenez.

Ekimenak gure museo eta aretoetako **ondarea eta bertsogintza bildu ditu**, bisitariei esperientzia kultural berezi eta erakargarri bat luzatzeko helburuarekin. Bertsolariek haien ekarpena egin diote gidarien diskurtsoari, bisitarien gozamenarako.

Ekimena gune hauetan egin da: **Bakioko Txakoli Museoa-Txakolingunea, Balmasedako La Encartada Fabrika-Museoa, Bermeoko Arrantzaleen Museoa, Bilboko Arkeologia Museoa, Bilboko Ondare Aretoa, Gernikako Euskal Herria Museoa, Kortezubiko Santimamiñe Kobazulua, Muskizko El Pobaleko Burdinola Museoan, Bilboko Foru Jauregian eta Euskararen Etxean.**

Euskararen Etxeko **Euskararen Interpretazio Zentroan Peru Irastortza eta Xabat Gallettebeitia** bertsolariak aritu dira.

Ekimenean parte hartu duten **beste bertsolari batzuk: Aissa Intxausti, Garazi Navarro, Ibon Ajuriagojeaskoa, Iker Uriarte eta Janire Arrizabalaga.**

Ondarearen Europako Jardunaldiak: “Euskara, mugez gaindi”

Bide, sare eta loturen ondarea lelopean egin dira 2024ko Ondarearen Europako Jardunaldiak Bizkaian; jardunaldien 24. edizioak 200 jardura baino gehiago eraman ditu Bizkaiko 72 udalerrira, urrian.

Ondarearen Europako Jardunaldiek gizartea sentsibilizatu nahi dute kultura-ondarea ezagutzeak, baloratzeak eta babesteak duen garrantziaz. Edizio honetako formaturik ohikoena ibilbide gidatuak izan dira, udalerrri bakar batetik edo hainbat herri lotuz egin direnak. Bide eta galtzada zaharretan zehar, baserriak, zubiak, ermitak, errotak eta burdinolak, kargategiak... bisitatu dira. Gainera, hitzaldiak eta solasaldiak, liburuen aurkezpenak, dokumentalen proiektzioak, kontzertu didaktikoak, tailerrak eta erakusketak egin dira.

Euskararen Etxeak ere parte hartu du jardunaldi

horietan; hain zuzen, Euskara, mugez gaindi izenburuko bisita gidatua egin da Euskararen Interpretazio Zentroan, urriaren 19an. 13 bisitari bertaratu dira.

Poesiaren Nazioarteko Eguna, Euskararen Etxean: "Alaska"

Poesiaren Egunaren harira, Euskararen Etxeak Alaska izenburuko ekitaldia ondu du, Castillo Suarez idazleak 2023an plazaratutako izen bereko poemaliburutik abiatuta, martxoaren 22an, Euskararen Etxeko Berba aretoan.

Suarezek ekitaldian parte hartu du liburu horren nondik norakoak azaltzeko, Julen Azpitarte kazetariak lagunduta.

Horrekin batera, Amaia Hormaetxeak eta Endika Basagurenek *Euskara Sukaldatzen* izenburuko dokumentala aurkeztu dute. AEBetan filmatua, hain justu, New York, Washington DC eta Miami hirietako leku ezagunetan, dokumentalak hainbat pertsona jasotzen ditu Castillo Suarez-en Alaska liburuko olerkiak irakurtzen. Diasporako euskal komunitateetan euskara aztertzea eta ikertzea du xede lku-entzunezkoak.

Azkenik, Argi Arte eskolako ikasleen ilustrazioak ere izan dira ikusgai: 18 eta 22 urte bitarteko ikasleek haien euskara zer den irudikatu dute sabaitik zintzilikatuta egon diren 120 x 45 cm-ko euskarrietan. 45 pertsona bertaratu dira ekitaldira.



"Euskararen Interpretazio Zentroan, udan, hitz eta jolas!": haurrentzako egonaldia



Egonaldian, Euskararen Interpretazio Zentroan bildutako edukiak landu dira; betiere, umeen adin-tarteetara egokituak, eta modu ludiko eta dibertigarrian joratzeko moduan. Antzerkia, hitz-jolasak, dantza, kantagintza, eta oro har euskararekin eta sormenarekin lotutako hainbat jardueratan parte hartu dute haurrek.

Sei eta hamar urte bitarteko 37 ume inguruk parte hartu dute bost egunetan goizez egin diren hiru egonalditan.

Euskararen Etxeak Bilboko Open ekimen arkitektonikoan parte hartu du

Open proiektuaren barruan bisitatu den eraikinetako bat izan da Euskararen Etxea; urriaren 1etik 6ra egin da, eta guztira, 24 jarduera antolatuko ditu herritarrek hiri-diseinu eta -garapenerako eraikin enblematikoak eta jardunbide egokiak ezagutu ditzaten.

Orotara, 72 eraikin bisitatu dira; 2024an, hain justu, zortzi eraikin berri gehitu dira, tartean, Euskararen Etxea: 28 pertsonak parte hartu dute Euskararen Etxeko bisitan.

Euskararen Etxeko eraikinari dagokionez, Euskararen Etxea 2004an inauguratu zen, euskal gizartearen hizkuntza sustatzeko eta zaintzeko erreferente izateko helburuarekin. Eraikina 50eko hamarkadan eraiki zen, frankismo garaian. Besteak beste, bertan Euskararen Interpretazio Zentroa kokatzen da, zeina oraintsu berri den eta euskararen bizi-indarra eta aniztasuna transmititu nahi dituen. Halaber, inplikazio pertsonala aldarrikatzen du, norberak egin baitio ekarpena euskarari. Azken batean, euskararen askotariko izaerak batu egiten gaitu, gehitu egiten du.

Zabalpena

Web bisitak:

www.euskararenetxea.eus webguneak

11.735 bisita izan ditu

www.euskararenetxea.eus webgunean

55 albiste propio argitaratu dira

Sare sozialak:



X: **1.359** jarraitzaile




Instagram: **1.699** jarraitzaile eta **234** argitalpen



Facebook: **520** jarraitzaile



Erreserba motak



Euskararen Etxeko zerbitzu nagusiak

Euskararen Interpretazio Zentroa dago gurean. Halaber, etxeak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu euskararen alde eta euskaraz jarduten duten eragileentzat.

Euskararen Interpretazio Zentroa (EIZ):

Euskararen historiari eta egoerari buruzko informazio interesgarri bezain baliagarria aurki daiteke EIZn.

Bisitak presentzialak dira, eta ikastetxe, talde eta norbanakoei zuzenduta daude.

IKASTETXEAK

- Pertsonak: 4.889
- Taldeak: 236
- Ikastetxeak: 75

TALDEAK

- Pertsonak: 826
- Taldeak: 71
- Entitate/Elkarte: 39

NORBANAKOAK

- Pertsonak: 379
- Bisita gidatuak: 82
- Bisitari libreak: 297

Aretoen lagapena:

Euskara helburu edo misio duten entitate eta elkarteentzako aretoak dira, besteak beste, aurkezpen, prestakuntza edota bileretarako balia daitezkeenak. Espazioen erabilera doakoa da eta erreserba egitea ezinbestekoa da.

Espazioak erreserbatu dituzten taldeak askotarikoak izan dira, tartean, UEU, Bai&By, Berritzegune Nagusia, Aiko Kantu EskolaBizkaiko Foru Aldundia, Gabriel Aresti Euskaltegia, Tokikom, KIVA, EIZIE, Kukulaisi, Garabide eta HABE.

- Parte-hartzaileak: 3.639
- Elkaratek/Entitate: 47
- Jarduerak: 147 (16 berri)

Lantoki Kooperatiboa:

Lantoki Kooperatiboa euskara helburu edo misio duten entitate, elkarte edota norbanakoen gunea da.

Egun, hamar eragile ari dira lanean. Eragileok bi urtez jardungo dute, 2025eko amaieran deialdi publiko berri bat egingo baita.

Hauexek dira co-working gunean ari diren eragileak:



Azkue Fundazioa

Irudi korporatibo berritua

Azkue Fundazioak bere irudi korporatiboa berritu du, garaiotara egokitzeko asmoz, bai eta bestelako irudia transmititzeko ere, dinamikoagoa, freskoagoa eta digitalagoa; besteak beste, webgune berria sareratu da: www.azkuefundazioa.eus. Horrekin batera, sare sozialetako irudia ere berritu da.



Bideojokogintzaren hainbat alde aztertu dituzte Jokoteknia jardunaldian

Jokoteknia Bideojokoen Euskal Jardunaldiaren xedea da euskara eta bideojokoak uztartzea eta euskal bideojoko zaleen komunitatea sortzea; **Game Erauntsia** elkartearekin egiten da lankidetzan. 2024koa **zazpigarren edizioa** izan da, azaroaren 9an.



Jardunaldian askotariko gaiak aztertu dira; ohi bezala, bideojokoa eta euskara izan dituzte ardatz, Euskal Herrira begira jarrita. Unai Arrugaeta irakasleak bideojokoak mugatzeko eta erabiltzeko aholkuak plazaratu ditu. Bigarrenik, Ibai Oihanguren informatikari eta bideojokozaleak itzulpengintzari nahiz euskaratutako bideojokoei buruz hitz egin du. Hirugarrenik, Maite Martinez Atabay Creations estudioko kideak bideojokoen marketingari lotutako diseinuaren gakoak azaldu ditu. Azkenik, Mikel Antero Keplerians taldeko arte zuzendariak Glitchmare

bezalako bideojokoen sormen prozesua aurkeztu du.

Jardunaldiari bukaera emateko, mahai ingurua izan da Digipen Europe-Bilbao Institute of Technology-ko, Harrobia Ikastolako eta Tartanga Lan Heziketarako Zentro Integratuko ikasleen parte hartzearekin.

TikTok sarean oinarritutako Biziber lehiaketa

Martxoaren 6tik maiatzaren 2ra arte egon da



martxan Biziber lehiaketa, TikTok sarean oinarritutako euskarazko lehen lehiaketa. Azkue Fundazioak gazteak eta sareak euskaraz ehuntzeko asmoz egindako proiektua da.

Astelehenero Lorea Intxaustik erronka ezberdinak proposatu ditu: dantza, bitxikeriak, sormena lantzeko erronka, lagunekin egitekoak... Horrela, 13 eta 16 urte bitarteko gazteek nahi beste erronka egin dituzte.

Erronka bakoitzetik irabazle bat atera da; beraz, zenbat eta erronka gehiago egin saria irabazteko aukera gehiago izango ohi dute parte-hartzaileek.

Edizio honetan Lorea Intxausti aktoreaz gainera, beste aktore eta tiktoklari batzuk egon dira erronkak egiten, besteak beste, Elene Mendizabal (@elemelonsv), Nahia Sillero (@nahiasillero) eta Kimetz Etxabe (@etxabekimetz).

Lehiaketak 64.936 ikustaldi izan ditu.

Informazio gehiago: www.biziber.eus

Xare Euskarazko Kultura Digitalaren Jardunaldia egin da Barakaldoko, Portugaleteko eta Santurtziko ikasleekin

400 ikasle inguruk parte hartu dute Barakaldoko Clara Campoamor Zentro Zibikoan egindako Xare Euskarazko Kultura Digitalaren Jardunaldian. Barakaldoko, Portugaleteko eta Santurtziko zortzi ikastetxek parte hartu dute martxoan burututako jardunaldian. Guztira, 381 ikasle.

Egitasmoa Azkue Fundazioak antolatu du, Eusko Jaurlaritzaren, eta Barakaldoko eta Portugaleteko udalen laguntzaz.

Sei tailer praktiko, bi hitzaldi interaktibo, Egunean Behin jokoaren zuzeneko partida bat eta Memeka lehiaketaren aurkezpena ekarri ditu IV. Xare Jardunaldiak Barakaldo



“Hala, birala!” lau eguneko kultura digitalari buruzko kanpusa

Bilboko Udalarekin lankidetzan ondutako lau eguneko kanpusean honako gaiak landu dira: stop motion animazio-teknika, euskarazko bideojokoak, sare sozialen inguruko erabilera eta jokabide egokiak eta bideoen edizioa.

2012 - 2013 urteen artean jaiotako 54 umek parte hartu dute ekimenean, 27k Aste Santuan eta 27k abenduan.

Landutako gaiak:

- Kartelgintza
- Sareen erabilera
- Stop-Motion
- Musika tailerra
- Bideogintza
- Bideojokoak
- Youtube
- Eduki sortzaileak



Memeka lehiaketa



Memeka gazteei zuzendutako euskarazko meme lehiaketa da, Azkue Fundazioak eta lametza enpresak antolatua. Egitasmoa martxoan abiatu da, eta harrera ona izan du gazteen artean. Gazteek haien sormena euskaraz adierazteko aukera izan dute modu umoretsu eta ludikoan: www.memeka.eus.

Egitasmoaren helburua ez da soilik gazteei entretenimendurako gunea eskaintzea, baizik eta plataforma digitaletan euskararen erabilera aktiboa sustatzea ere, modu dibertigarri eta erakargarrian.

IDE Ingurune Digitaleko Hiztegi Eleaniztuna



Ingurune Digitaleko Hiztegi Eleaniztuna ide.eus webgunean dago kontsultagai. Kontzeptuen terminoak lau hizkuntzatan bila daitezke: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa.

Kontzeptuak ondoko ataletan banatzen dira: Internet, Informatika, Sare sozialak, Telekomunikazioak, Zibersegurtasuna, Bideojokoak eta Merkataritza digitala. 2024an beste 100 kontzeptu berri gehitu dira, eta egun 460 kontzeptu ditu hiztegiak.

Ondokoek sustatu dute hiztegia: Azkue Fundazioak, Elhuyarrek, Euskaltelek, Game Erauntsiak eta Puntueus-ek.

“Herrietako Telebista” egitasmoaren aurkezpena

Azkue Fundazioak “Herrietako Telebista” egitasmoa aurkeztu du Euskararen Etxean, ekainaren 19an. Streaming bidez ere transmititu da ekitaldia, hain zuzen, Euskararen Etxeko Youtube kanalaren bidez.

“Herrietarako Telebista” streaming bidezko zerbitzu bat da (STREAM-UP), zeina Google Mapseko mapan oinarritzen den, gune geografiko batean klik egin, eta bertatik emititzen ari den zuzeneko ikusteko.

Egitasmoaren helburuak:

- Tokiko euskarak sustatzea
- Tokiko kultur eta kirol ekitaldiak sustatzea
- Herritarrek egingo duten telebista sustatzea

- Zuzeneko ekitaldien kultura sustatzea
- Herri kulturari balioa ematea
- Udalerri txikiei garrantzia ematea

Josan Aramayo proiektuaren sortzaileak eta lurdana Acasuso Azkue Fundazioko zuzendariak parte hartu dute jardunaldian.

Azkue Fundazioaren helburua ingurune digitalean euskararen erabilera eta presentzia sustatzea da, horretarako, besteak beste, sektoreko eragileen lanaren erakusleho eta kolaboratzaile izan nahi du. Jardunaldi hau erakusleho lan horren barruan egingo da.

Babesletzak

Ikusgela:

euskarazko bideo pedagogiko libreen (filosofia, ekonomia, historia, matematika...) erreferentziazko proiektua izan nahi du, eta idatzizko Wikipedia bideoz hornitzea du xede. Euskal Wikilarien Kultura Elkartek zuzendutako egitasmoa da.

<https://wikimedia.eus/ikusgela/>



Zabalpena

Web bisitak:

www.azkuefundazioa.eus webguneak

6.400 bisita izan ditu

(2024ko urriaren 16tik abenduaren 31ra arteko arteko arteko datuak dira)

Sare sozialak:



X: **7.970** jarraitzaile



Instagram: **2.428** jarraitzaile eta **1.222** argitalpen



Facebook: **5.891** jarraitzaile



Youtube: **379.788** bideo ikustaldi inguru eta **310** bideo



Mastodon: **289** jarraitzaile

Parte-hartzeak

- Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Bizia Batzordeko kide.
- Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzordearen Inguru Digitaleko Azpibatzerdeko kide.

AZKUE

FUNDAZIOA

